

KALITATEAREKIKO KONPROMISOA

Calzada Egoitza Fundazioak bere Plan Estrategiko guztietan lehenik eta behin Printzipio modura KALITATEA azpimarratzen du.

Bere helburu nagusia lortzeko: **“Egoiliarren bizi kalitatea maximizatzea”**, Calzada Egoitza Fundazioak bere zerbitzuen kalitatearen etengabeko hobekuntza, ingurumenarekiko errespetua, Gizarterako zerbitzua bultzatzearen aldeko apustu garbia egiten du, aldi berean proiektua osatzen dugun pertsonen osasuna eta segurtasuna bermatuz, laneko arriskuen prebentziorako politikak finkatuz.

Calzada Egoitza, adineko pertsonen arretara eta zaintzara bideratua, kalitatezko zerbitzuen bidez bezeroa eta gainerako interesatutako taldeak asetzeko beharraren jabe izanik, etengabeko hobekuntza, Ingurumenaren babesa, kutsaduraren prebentzioa eta araudiko baldintzen konplimendua hala nola erakundeak izenpetutako bestelako baldintzak arduraz betetzeko konprometituta dago, baliabide hauek direla medio:

- **Kalitatearen eta Ingurumenaren Gestio Sistema** garatzea eta ezartzea.
- **Irekitasun maila** egokia bermatzea, bai kanpoko (interesatutako gure taldeei dagokienez) eta bai barrukoa (erabiltzailearen integrazioa egoitzan).
- Langileak proiektu komun bat garatzeko beharrea **motibatzea**, euren partaidetzaren garrantzia azpimarratuz.
- Langileak **prestatzea**, arreta profesionala eta integrala eskaini dezaten, eta bere eraginkortasuna egiaztatzeko prestakuntza hori aldizkakotasun batekin ebaluatzea.
- **Egoiarrari zuzendutako** jarduerak ezartzea bere bizi kalitatea maximizatzeko: beharrezko giza babesa zein espiritual, baliabide eta azpiegitura egokiak eta giza baliabide eskudunak emanaz.
- Egoitzaren antolamendu eta laguntza irizpideak oro har egoiarrak bizi izaten dituen baldintzekin **egokitzea**.
- Egoiarrari **banakako arreta** ematea.
- Egoiarraren **autonomia** eta askatasun sentimendua bultzatzen dituzten jarduerak ezartzea, bere bizitzari dagozkion erabakiak hartzeko, euren bizitzako protagonistak direla kontura daitezen.
- Egoiarraren **integrazioa** erraztea, bere inguruneko jardueretan **partaide** izatearen bidez.

- Interesatutako alderdi ezberdinen artean (egoiliarak, familiakoak edo bere kasuan tutoreak, zerbitzuaren arduradunak eta langileak) **harremanerako bide zuzenak** ezartzea.
- **Informazio** garden eta garbia ematea, egoiliarren intimitatea errespetatuz.
- Gure politika eta ikuspegiarekiko **helburu** egokiak finkatzea, urtean behingo aldizkakotasunarekin ikuskatuko direnak.
- Kalitatearen eta Ingurumenaren Gestioan bikainak izatea: Gestio profesionalizatua eta finantzaketa optimoa.
- Ingurumenarekiko gure kezkaren baitan, ingurunearekin lotutako gure jarduerak hobetzea dago, baliabide naturalen kontsumoa murriztuz eta hondakinen gestio egokia bultzatuz.

Helburuen lorpena Egoitza osoaren ardura da; horretarako beharrezkotzat jotzen dira langile guztien partaidetza eskatuko duten Kalitate eta Ingurumen politikaren hedapena, ezarpena eta onarpena.